



MARISOL RAMIREZ / FOKU

«Europak irizpide batzuk finkatu behar ditu nazio auzian»

Izaskun Bilbao Barandika
EAJko hautagaia Europako bozetan

Argitasun Legea da EAJk datozen Europako hauteskundeetarako egindako proposamenetako bat estaturik gabeko nazioei «soluzio demokratikoak» emateko.

Gozton Hermosilla Bilbo

EAJko Izaskun Bilbao Barandikak (Bermeo, Bizkaia, 1961) hamar urte eman ditu Europako Parlamentuan, eta oraingoan ere Ceus koalizio zerrrendaburua da. Koalizio horretan PDeCAT ez egotea -CIU EAJren ohiko bazkidea izan da Europako hauteskundeetan- oztopo izango da Europarako bidean, baina Bilbaok ez du itxaropena galdu: «Bost urtean egindako lana da hauteskunde kanpainarik onena».

Europako hauteskundeak ez al dira apur bat oharkabean igarotzen ari?

Egia da beste hauteskunde batzuk ere badaudela, eta Europakoa estalita geratzeko arriskua dagoela, baina hori aukera bat ere bada: ekitaldi guztietan lotu ahal izan ditugu herrieta eta herrialdeetako gaiak Europarekin. Europak afera guztietan du eragina: arrantzan, berrikuntzan, automozioan, giza eskubi-deetan, memoria historikoan...

Oraingoan PDeCATeko zuen ohiko bazkideekin koaliziorik egin ez izanak zaildu egingo dizue diputatua lortzea?

Katalanekin koalizioan joan garenan, boto gehiago lortu ditugu, Kataluniako biztanleak ere gehiago direlako, baina guretzat politikoki oso garrantzitsua da, adibidez, Geroa Bairekin joatea, horrek irudikatzen baitu Euskal Herria batera doala Europa. Horrez gain, Valentziako, Balea-

rretako, Galiziako eta Kanarietako bazkideak ere badaude koalizioan, eta ados daude bi gauzatan: Espainiako Estatuan aniztasuna badagoela eta eredu aldatu behar dela.

Koaliziorik egin ez baduzue ere, elkarlanerako hitzarmena sinatu duzue PdeCATekin, hauteskundeen ostean batera aritzeko. Horrek esan nahi du Kataluniaren auziaz PdeCATek aurkeztuko dituen ekinbideak babestuko dituzuela?

Ezaguna da PdeCATekin eta lehenago CIUrekin harreman estua izan dugula, eta, elkarlana ez ezik, maitasuna ere badago urte askotako harremanaren ondorioz. Orain arte ere elkarlana estua izan da, eta, sinatu dugun hitzar-

menaren arabera, aurrerantzean ere lankidetzan egongo da hainbat arlotan.

Eskuin muturraren gorakadarekin, arriskuan al dago Europa?

Bai. Espainiako hauteskundeetan, jendeak oso argi ikusi zuen arrisku hori, eta erreakzioa izan zuen; orain, Europan ere badago arriskua. Eskuin muturra lehenago ere egon da Europako Parlamentuan, baina badirudi hauteskunde hauen ostean askoz indartsuago egongo dela. Donald Trumpen aholkulari izandako Steve Bannon hor dago lanean, Bruselan, duela sei hilabetetik, eskuin muturreko indarrak koordinatu nahian. Marine Le Pen Frantzia lehen indarra izan litekeela diote; [Matteo] Salvini, Vox...

Eta zer egin daiteke horri aurre egiteko?

Zenbat diputatu lortzen dituzten bezain inportantea izango da gainerakoek zer egingo dugun. Eta hor argi ezarri behar dira marra gorriak. Eztabaida politikoa sakona égongo da. Legealdi garrantzitsua eta interesgarria izango da, lehenengo aldia delako Europako egitasmoa zabaldu jartze hori barrutik datorrela.

Europar ulertzen dute kontzertu ekonomikoa?

Primeran ulertzen dute, eta horren froga da badagoela epai bat kontzertua gure sistema propioztat aitorren duena, eta hainbat txostenek sistema eraginkor eta justuagoz hartu dutela. Gure us-

tez, Euskadik ordezkariak edukitu beharko luke Ecofinen [Finantza eta Ekonomia Auzietako Kontseilua; estatuetako Ekonomia eta Ogasun ministroek osatzen dute], gure sistema parekatu daitekeela estatu baten sistemarekin. **Zer iruditzen zaizu Europak Kataluniaren gatazkan izan duen jarrera?**

Europako Batzordeari hainbat galdera egin dizkiogu auziaz, eta bitartekari lana egin dezala ere eskatu diogu. Iñigo Urkullu lehen-dakaria ere aritu zen horretan. Erantzuna beti izan da estatu baten barne arazoa dela eta estatu bakoitzak konpondu behar dituela bere barne aferak. Baina nik nabarmenduko nuke Parlamentuan egon zen eztabaida urtaren

Jeko irudiak ikusi ondoren. Eztabaida hori oso sakona izan zen, eta ondorio nagusia izan zen ezinezkoa dela halakoak gertatzea XXI. mendeko Europan, legea errespetatu behar dela, baina legea ez dela nahikoa, eta arazo politikoa bati aurre egiteko elkarrizketa eta negoziazioa erabili behar direla.

«Eskuin muturrak zenbat diputatu lortzen dituen bezain inportantea da besteok zer egingo dugun»

Helburu horrekin sartu duzue zuen programan Europan Argitasun Legea egiteko proposamena?

Bi legealdi daramatzagu esaten Europak sistema bat behar duela estaturik gabeko nazioei soluzio demokratikoa emateko. Europako herritar gisa, uste dugu horrelako arazoei Europa mailako soluzio bidea eman behar zaiela, eta eskema bera izan behar duela Katalunian, Euskadin edo Korsikan. Arazo politikoak daudenean, gure ez dugu ikusten beste biderik akordio zabalak egin eta herritarrek ados dauden ala ez esateko aukera izatea baino.

Ciudadanosen talde berean egoteak kontraesanik ekartzen dizue?

ALDE Liberalen eta Demokratien Aliantza talde parlamentarioa gure sortu genuen, 2004an, Josu Ortuondo diputatu zenean. Hasiarik egon gara, eta, aurreko legealdian, Ciudadanos ere talde horretara etorri zen. Azalpenak euren eman beharko lituzkete. Dena dela, kontuan hartu behar da Europako Parlamentuan logikak desberdinak direla.

Eskozia, Irlanda, Katalunia... Hurrengo legeingintzaldia estaturik gabeko nazioena izango da?

Nazio bakoitza bere bidea egingen ari da. Eskoziaren kasuan, ikusi genuen Erresuma Batuen gobernuak normaltasun osoz hartzen zuela erreferendumaren ideia, eta, orain, brexit-aren auziarekin, mahai gainean dago beste erreferendum bat egiteko aukera. Irlandari dagokionez, orain, kezka nagusia da bake prozesuari eustea, arrisku batzuk sortu direlako, baina nik uste dut brexit-a gauzatzeko bada Ipar Irlanda eta Irlandako Errepublika batzeko aukera errealek egongo direla. Prozesu bakoitzak bere bidea du, baina Europak irizpide eta parametro batzuk finkatu behar ditu: negoziazioa, akordioa eta jendeak erabakitzea.